

# **Kartel politiko sobietarra: propaganda eredu baten azterketa eskripto-ikonikoa**

**Jose Inazio Basterretxea**  
EHUko irakaslea

Komunikazioaren mundu anitz eta oparoaren adibide ikusgarria bezain gutxi aztertua den kartelgintza sobietarrari buruz, Mosku eta Leningradeko biblioteka-artxibo-museoetan eta Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean burutu den bost urteko ikerketa zientifikoaren emaitza da eskuartean duzun hau.

Here you have the result of a scientific research on an interesting but shortly discussed case of the communication world, the one dealing with Soviet posters, which took five years for its elaboration in the Media Studies University in Leioa and also in the museums, archives and libraries in Moscow and Leningrad.

Sobietar Batasuneko Instrukziorako Herri Komisaria izandako Anatoli Vasilievitx Lunatxarskiik *Мы наши друзья и наши враги в ризунках Дени*<sup>1</sup> tituluarekin, 1930. urtean argitara eman zuen ehun eta laurogei orrialdeko liburuxkaren prologoak biztu zidan argia buruan Moskuko Lenin Bibliotekan liburu zaharrak ikusten niharduen batean. Deni artistari eskainitako lan honetan, ironia eta satiraren maisua izandako marrazkilari honen obra grafikoan Lunatxarskiik “gu eta gure lagunak” gauza bat, eta “arerioak” beste bat zirela aurrikusi zuen. Deni marrazkilariaren grafikan Lunatxarskiik “gu eta lagunak” baketsu, langile, ikasle, indartsu, ausart, lerdin, aktibo eta maitakor ikusi zituen; “arerioak”, oster, beldurti, mozkorti, lodi, pizti-itxurako eta gezurti iruditu zitzaizkion.

Liburuak, esan legez, atentzioa deitu zidan. Lunatxarskiik Deni marrazkilariaren lanaz aurreratutako inpresio horiek etxean lagunak eta biok genuen kartel politiko sobietarren bildumaxka beste era batera begiratzera eraman ninduten. «Zelan errepresentatu dituzte etxeakoak eta arerioak, ez bakarrik Denik berak baizik eta marrazkilari politiko sobietarrek orokorrean euren lanetan, zelan karakterizatu dituzte gutarrak eta besteak artista politikari sobietarrek, ez euren marrazkietan, euren plakat<sup>2</sup> edo kartel politikoetan baino?» galdetu nion neure buruari.

Bilatzen ihardun arren, ez nuen erantzunik jaso. Plakat politiko sobietarraz idatzi egin da, baina Lunatxarskiik aurreratutako inpresio haiei jarraituriko

ikerketarik ez da ezagutzen. Han, *in situ*, asetzerik izan ez nuen egarri haren ondorio da zure eskuetara heldu den doktorego-tesi honen laburpena<sup>3</sup>.

### **1.1. Ikerketaren helburua eta galdera nagusiak**

Sobietar Batasunak, modu ofizialean errusieraz, Iraultza-Gerla Zibil (1917-1922), Aberri Gerla Handi (1941-1945) eta Perestroika (1985-1991) garaietan ezagutzera emandako plakat edo kartel politiko sobietarretan presente dauden aurkari nagusien (GU –lagun– eta EURAK –arerio–) dualitatearen erradiografia eskripto-ikoniko diakroniko eta sinkronikoa egitea izan da ikerketa honen helburua; dualitatea plakat sobietarrean aztertu gura delarik, ez da hipotesirik txekteatu eta ikergalderak landu dira.

Plakat sobietarrean aurkari nagusiak, GU (lagun-etxe-hurkoak) eta EURAK (arerio-kanpotar-urrunekoak) zelan isladatu, zelan marraztu eta aurkeztu diren aztertu da batez ere lan honetan. Era berean, ikerketa honek plakat edo kartel politiko sobietarrak hiru garaiotan erakutsi dituen ezauzgarri estilistikoak bilatu ditu.

Azterketa honetan ikerketa bikoitza egin da: alde batetik plakaten analisi sinkronikoa eta bestetik diakronikoa.

### **Ikerketaren barruti sinkronikoa (BS) eta diakronikoa (BD).**

Garaian garaiko plakaten erradiografia komunikatiboaren azterketari dagozkion ikergalderak biltzen dituen

1. «Geu, geure lagunak eta arerioak Deniren marrazkietan».

2. Lan honetan “plakat” eta “kartel politikoak” sinonimotzat hartzen dira.

3. Doktorego-tesiaren titulu osoa ondoko hau izan zen: «Dualitatea plakat sobietarrean: kideen eta arerioen karakterizazio eskripto-ikonikoa errusiar hizkuntzazko oinarri literarioa duen kartel politiko sobietarrean (Iraultza, Aberri Gerla Haundia eta Perestroika)». Epaimahaiaik *gai cum laude* kalifikazioaz saritu zuen.

barrutia da BS barrutia. Plakaten gaia, gutasuna, ihardule-komunikatzailearen eginkizun nagusiak, pertsonaiaren karakterizazioa, ekintza denotatuak eta konnotatuak, narrazioaren kokapen espaziala eta soziala, diseinuaren joera teknikoak, aurkari nagusien koloretapena, testuinguru politiko zabala, pertsuasio-teknikak eta topiko nagusiak analizatzen dituen ikerbarrutia da BS.

Eskuartean hartu ditugun hiru epeon konparaketari dagozkion ikergalderak biltzen dituen barrutia da BD. Bigarren ikerbarruti honetan plakata osatzen duten elementu pertineten dentsitatearen analisia (eginkizunak, objektuak eta berbaldiaren dentsitatea), plakata eratzeko autoreek erabilitako diseinuaren azterketa (espazio-oreka, sakontasuna, mugimenduaren islada, irudiaren teknika, hondoa eta erabilitako plano-karakterizazioa), plakataren eszenategian agertutako pertsonaia nagusien karakterizazioaren ikerketa (generoa, izaera, itxura, adina, famili eginkizunak eta begiradaren zelakotasuna), eta plakat-eszenategia osatzen duten objektu konnotatuen semantika politikoaren garapena (gutasuna, ekintza nagusiak, sinbologia, koloretapena, atxikimenduak, errefusamenduak eta topikoen jokoak) eskaintzen dira.

## **1.2. Kartel politikoa, plakat sobietarra eta historiaren joana**

Urruna suerta dakigukeen gaira hurbiltzeko asmoz, lan honetan berebiziko garrantzia eduki du plakat sobietarraren historia zehazten duen ahalegin kronologikoak. Kronologia honek, batetik, garaian garaiko joera estilistiko nagusiak aipatu, eta, bestetik, propaganda eta agitazioaren ildo nagusien nondik-norakoak aztertu ditu historia politikoa eta diseinu politikoa uztartzuz.

Kartelgintza, kartelgintza politikoa, plakat sobietarra, eta diseinua eta grafika politikoaren XX. mendeko ibilbidearen joan-etorriak laburtu dira lanaren kontzeptualizazio-zereginetan; besteak beste, Cassandre, Barnicoat, Ramírez, Gubern, Christin, Iglesias, Darracott, Loftus, González Neira, Peninou, Renau, Lodder, Domenach, Julián, Kurtz, Proum, eta Novickiren lanak gogoan hartuta.

### *1.2.1. Artea eta iraultza sobietarra*

1917ko iraultza proletarioaren inguruan arteak eta artearen profesionalek protagonizatutako debate interesgarriaren ibilbidea eskaintzen da lan honen hasierako testuen artean. Eztabaida politiko-artistiko honetako, protagonista nagusien iturrietara jo dugu lan hau burutzerakoan. Ikerketaren barruti artistiko-politiko honetan Leninen iraultza-bezpera eta iraultza ondorengo arteari buruzko kontzeptzio nagusiak, Troztkiren kultura eta arte proletarioari buruzko definizioak eta Alderdiaren jarrerari buruzko asmoak, Kalininen iritzi ofizialak, Lunatxarskiiren jarrera dialogantearen zutabeak, eta Krupskaiaren definizio eta aporterazio militanteak bildu ditugu batetik; eta, bestetik, 1917-1922 bitartean gizarte sobietarrean orokorrean eta, zehatzago, artearen munduko protagonisten artean garatutako eztabaidaren zutabeak aipatu dira, hala nola Maiakovskii eta futurismoa, Malevitx eta suprematismoa, Rodtxenko eta produktibismoa, LEF taldea eta Maiakovskii, Tatlin eta Konstruktibismoa; azkenik, artea eta botere sobietarraren arteko harremanak gainikusi ditugu *Agit-Prop* agitazio eta propagandarako erakunde espezialdua, *Proletkult* kultura proletarioa garatzeko taldeen elkargoa, *Narkompros* hezkuntza eta instrukziorako herri-komisarioa,

*Obmoju* artista gazteen elkarte eta *Rosta* telegrafo agentziaren joan-etorriak begien aurrera ekarriz.

### 1.2.2. Iraultza garaiko plakata, kartel politikoa

1917-1922 bitarteko plakatgintza sobietarraren ibilbideaz egin da hausnar bereziki. Plakat boltxebike iraultzaileak mezuak hedatzen, kanpainak eratzen eta sufrimenduak eramaten lagundu zuen gerlak jaten ziharduen Errusia matxinatu hartan; 1917. urteko azaroaren 8an<sup>4</sup> monarkia errusiarra eta botere burgesa deuseztatu ondorengo Errusia matxinatu hartan. Plakat politikoa arte bilakatu zen, Alderdiak zuzendutako masa-arte, arte soziala, herri xehearentzako artea. Artelan sozialduok, testu lakonikoz jantzitako plakatok, masa iraultzailearen arreta eurenganatu eta botere boltxebikearen barne eta kanpoko arerioen aurkako borrokarako eta ekonomia ulertzeko modu berrietarako prestatu zuten masa matxinatua. Garai iraultzaile honetan ideologia sozialistaren agitazio eta propagandarako, gerlan aurrera egiteko leloak zabaldu eta morala indartzeko bitarteko nagusienetarikoa izan zen kartel politikoa, plakata.

### 1.2.3. Aberri gerla handiko plakata

Atal honetan 1941-1945 bitarteko plakat sobietarrak nazien inbasioari zelan egin zion aurre gogoratu da. 1941. urteko ekainaren 22an sartu ziren Hitlerren tropak Sobietar Batasunean. Atzean geratu zen gerla saihes-terko hitzarmena. Iraultza garaian gertatutakoaren antzera, mobilizazioetarako bitartekorik erabilienetakoa izan zen garai honetan plakataren dei oze-

na. Gerlan aurrera egitea aberri sozialista garatzen joatea zela hedatu zuen lau bazterretara propaganda sobietarrak, garai honetako plakatgintzaren laguntzaz besteak beste.

### 1.2.4. Perestroikako plakata

1985. urteko udaberrian onartu zuen Mijail Sergeievitx Gorbatxovek Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren Idazkari Nagusiaren izendapena. Aldaketa politikoen iturriak analizatzeko Gorbatxov, Xevardnadze, Ligatxov, Gromov, eta Pavlov protagonisten testuen laguntza paregabea eduki dugu batetik; eta, bestetik, Gladki, Maidanik, Pumpijanskii Sobietar Batasuneko kazetari eta ikerlari ezagunen iritziak; eta, Taibo, Aganbegiyan, Chavance, Sapir, Scheer, Thomas, Vicary, Iradir, eta De la Cueva kazetari eta ikerlari *atzeritarren* lanak. Aldaketa politikoez eragin zuzena eduki zuten arte-munduan. Aurreko urteetako koordenadak ahaztu zituen plakat berri bat ikusi dugu jaiotzen Perestroika-urteotan. Zentsura eta debekuetatik inoiz baino askeago, sorkuntza grafikoak urte askotan gogoratzen ez zen moduko loratzea ezagutu zuen Perestroikan.

## 1.3. Ikerketaren diseinua

Ikerketa zientifikoa burutzea izan da esku artean duzun azterketa honen helburua. Lan honetan erabilitako metodo eta teknikek kriterio orokor bat eduki dute: ikerketaren barne eta kanpo balioa bermatzea. Ikerketa hau sistematikoa, kontrolatua, enpirikoa eta kritikoa izan da. Ikerketa koantitatibo zehatz batek zenbait inferentzia koantitatibo egiteko oinarri eman digu.

4. Data hau egutegi gregorianokoa da, egutegi errusiar zaharretik –julianotik– Iraultzak Urri Handian ikusi baitzuen argia, 25eko gauean (egutegi bien artean hamahiru eguneko aldea dago).

### *1.3.1. Ikerketaren lanlekuak*

Ikerketa hau aurrera eramateko, museo eta bilduma hauetan bildu da informazio grafikoa: Leningradeko Museo Errusiarrean eta Ermitagen, Moskuko Iraultza Museo Zentralean, Puxkin arte aderretako bilduma nagusian, Puxkin bilduma pribatuen biltegian, Maiakovski museo modernoan, Lenin museo zentralean eta geure bilduma partikularrean. Informazio idatzia, batez ere, Moskuko Lenin biblioteka zentralean eta Zeregin Estrategikoetarako Zentru errusiarrean, Espainiako zein Frantziako biblioteka nazionaletan, eta Euskal Herriko Unibertsitateko biblioteka nagusian bildu da.

### *1.3.2. Unibertso eta laginak*

Plakat sobietarraren ikerketa sinkroniko eta diakroniko bikoitz honen unibertso osoa Iraultza eta Gerla Zibila, Aberri Gerla Handia eta Perestroika garaietan argitaratutako plakaten ehun eta hogeita hamar katalogo, erakusketa eta bilduma publiko eta pribatuk osatu dute. Nire eskuetatik plakat kopuruok igaro dira: 1917-1922 urteetakoak ez bi mila baino gutxiago, 1941-1945 urteetakoak hiru mila baino gehiago eta 1985-1991 urteetakoak zortziehundik gora. Autoritate, eduki-ordezkgarritasun, errepikapenak saihesteko helburuko eta estetika-kriterioetan oinarrituta, hogeita hamar bildumako unibertso ordezkgarria eratu da. Azken unibertso honetatik berrehun eta hirurogeita hamar plakateko ikerlagin aleatorioa hautatu da, laurogeita hamar plakat garai bakoitzeko.

### *1.3.3. Metodologiaren urrats nagusiak*

Plakat-azterketa honek ikerketa unitate nagusi bi eduki ditu. Ikerketak

plakata bera, bere osotasunean, hartu du unitatetzat plakataren beraren gaia, gutasuna, iharduleen kopuruak, ekin-tza denotatuak eta konnotatuak, eszenategiak, objektu pertinenteen kopurua, plakataren diseinu-oreka, sakontasuna, mugimenduaren islada, irudi-teknika orokorra, betedura, hondoa, kolorea, berbaldia eta pertsuasioa analizatzeko unean. Plakataren osagaiak eurak hartu dira ikerketa unitatetzat lehen ihardulearen eginkizunak (izaera, generoa, famili ardua, itxura, adina, lanbidea), objektuen eta sinbologiaren semantika, pertsonaia nagusiaren begirada, eta planoen analisia burutzeko unean.

Ikerketa honek bere metodologiaren zientifikotasuna frogatzeko eta emaitzen analisi-konfidantza bermatzeko froga-ariketa independente bat gainditu du.

Laginean parte hartu duen plakat bakoitzari balio koantitatiboa eduki duten hirurogeita hamazortzi iker-galdera eta balio kontsultagarria izan duten beste hogeita hemeretzi iker-galdera egin zaizkio. Plakat bakoitzaren analisiak, beraz, ehun eta hamazazpi iker-galderako ikerfitxa modeloari erantzun dio. Hamar milatik gorako informazio-sarreren emaitzak barruti nagusi bitan borobildu dira: garai bakoitzeko emaitzak deitutako atal sinkronikoan, non ehun eta laurogei taula eta grafikok erakusten baitute informazio-elementuen jarioa; eta, hiru garaietako emaitzen konparaketa deitutako atal diakronikoan, non hirurogei taula eta grafikok erakusten baitute emaitza gurutzatuen nondik norakoa.

Emaitza eta ondorioak, azkenik, zutabe nagusi bitan borobildu dira: zutabe sinkronikoa eta zutabe diakro-

nikoa. Emaizta sinkronikoez epe bakoitzeko balizko plakat-arketipo nagusia marrazteko aukera eman dute; diakronikoez, euren aldetik, plakatgintza sobietarrean ezagututako garapen-urrats nagusiak ezartzeko baliabideak.

#### 1.4. Ikerketa honen garrantzia

Lan honetan zenbait ikerketa-metodologia eta teknika konbinatu da erabilera propioa prestatu eta ikerketa originala burutzeko, zeren kontuan hartu behar baita tankera honetako analisisetarako metodologia propioak ez dagoela. Metodologiaren prestaketa hau kontu handiz egindako lana izan da.

Ezagunak ziren plakatgintza sobietarrez egindako analisi politiko, artistiko eta historiografiko batzuk; hala nola, besteak beste:

Iraultzarako, Strigaloven propaganda-artearen definizioak (1990), Baburinaren plakatgintza sobietararren ildo nagusien azterketak (1975, 1984, 1988 eta 1990), Xmitkoven agitazio artistikoaren lerroen analisi (1977), Osipova (1964), Kraev (1970), Evteeva (1969), Siverskii eta Buriken gerla zibila bitarteko plakatgintzaren argitalpenen datuak (1960), Avdeitxiken plakat politikoaren eta alderdiaren arteko harremanen analisi (1985), eta Maiakovskii (1955) eta Polonskii (1925) militanteen lanak.

Aberri Gerla Handirako, Demosfenovaren plakat egile frontisten datuak (1962 eta 1985), Lovanovaren sobietar plakat gerlariaren datu estatistikoak (1948), Komaroven agindu militarren azterketa (1990), Kalininen artikulua eta hitzaldiak (1943 eta 1944), Gontxarovren plakat-analisi politikoak

(1989), Dolinskaiaren plakat-egileen koalifikazio profesionali buruzko datuak (1968), Pixkova (1962), Arugiunian (1987), Laxkul (1962), Varxavskii (1946), eta Tomek (1971) autoreen gerla bitarteko plakataren eta propagandaren azterketa koantitatibo eta estatistikoak, eta Matafonov (1977), Vixenevskii (1943), Surkov (1982), Kamenskii (1973), Ivanova (1985) eta Ivanov (1986) ikerlariek nazien kontrako borroka agitatzailean parte zuzena hartu zuten plakat-egile eta artista kolektiborik garrantzitsueni buruz idatzitakoak.

Perestroikarako, Xetkinen garai honetako artisten aitzindari historikoei buruzko analisi (1960), Gratxeven plakat hizkuntzez (1985), Lukianoven plakat sobietararren itxuraldaketa (1991), Jegoroven ikusle sobietarren interes-aldaketaz (1989), Litvinoven artista sobietararren aitzindaritzaren mugimendu politikoan (1989), Jospinen oposizio grafikoa Sobietar Batasunean (1991), Semenoff-Tian-Chanskyren plakat sobietararren kontraesan eta eztabaidak (1991), eta Coldey-Foucarden plakatgintza sobietararren garapen sozialari buruzko ohar orokorrak (1991).

Baina ez da inoiz egin, oster, komunikazioaren teoritik abiatuta plakat-artearen aurkari nagusien ezagutza eskriptibo-ikoniko koantitatiborako prestatutako ikerketa-fitxa berezitan oinarritutako inferentzia koalitatiboak eskaini zitezakeen lanik. Eta horixe da lan honen ekarri nagusia, hots, ikerketa koantitatibo-koalitativo zientifikoa egin izana GU eta EURAK deitu ditugun aurkari nagusien alorrean.

Plakat sobietarreko aurkari-dualitatearen komunikazioaren teoritiko irakurketa eta ikerketarako, plakat-analisi

hau eratzeko, besteak beste, komunikazioaren ikerle diren autore hauen teoria eta teknikak bildu, kontrastatu eta lanean jarri dira: kartelaren zehaztasunetarako Moles eta Enel; irudiaren erretorika eta objektuen semantikarako Barthes; berbaldiaren zehaztasunetarako Entrevernes taldea, Kristeva eta Greimas; pertsonaien eginkizunetarako Moreno Sardá; ikurretarako Peirce-Hartshorne; irudiaren sintaxirako Dondis; kolorearen interakziorako Albers; eta, iragarkiaren baliapideetarako Pérez Tornero eta Bouza Alvarez. Autoreon analisi-teknikak bateratzeko, analisi piloto baten ondoren ikusitako beharriaz erantzunda, ikerketa honetarako prezeski asmatutako metodologi urrats propio ugari eman da, batez ere kategoria, aldagai eta kodifikazioaren arloetan.

## **2. Ikerketaren ondorioak**

Arlo nagusi bitan bildu dira inbestigazio-lan honen ondorioak: ikerketa sinkronikoa –IS– eta ikerketa diakronikoa –ID– deitutako barrutietan. Leheanean, IS deitutakoan, Iraultza, AGH, eta Perestroikako plakaten erradiografia eskripto-ikoniko bereziekin utzitako ondarea batu da. Bigarrenean, ID barrutira, plakaten elementuek eurek eta plakata bera eratzeko autoreek diseinatutako joera nagusiek ezagutu duten garapenaren oihartzuna ekarri da.

### **2.1. Ikerketa sinkronikoa**

#### *2.1.1. Iraultza*

Iraultza sobietarrak plakadari egotzi zion propaganda boltxebikea garatzearen zamarik handienetarikoa bat, plakata

bera izan baitzen Alderdi matxinatuaren ahotsa, leloa eta enfasia.

Une iraultzaileotan plakata Alderdiaren artea izan zen, joera politiko zehatz baten menpeko arte-mota, boltxebismoaren transmisio-katea. Une honetan, plakataren garapen ideologikoa eta sortzailea herri sobietarraren garapen historikoaren arazo nagusiek determinaturik daude.

Propagandarako hedabidea izan zen plakatak, kartel politikoak, Estatu Sobietar gaztearen lehen urteetan jenero artistiko propioaren kategoria irabazi zuen garaiko artistek iraultza-uren uretara jauzi egin eta borrokarekin konprometitu baitziren.

Artea eta agitazioa, Errusia Sobietarraren lehen urteotan, txanpon beraren aurpegi biak dira. Botere sobietarraren lehen urteetan klase- eta alderdi-nortasuna zeuzkan arte ederren mundura azaldu zen plakata. Arte proletarioa eta plakat sobietarraren historia ezin bana daitezke Botere sobietarraren historiatik, ez genituzke eta batzuk bestea barik ulertuko. Kartel politiko guztietan irakur zitekeen «Plakat hau ken edo apur dezakeenak jakin beza ekintza anti-iraultzailea dagiela!» leloak baieztatzen du botere sobietarrak pro-pagandaren muina izan zuen plakadari aitortutako garrantzia.

Sobietarren eskuetan plakata izan zen proletalgoarentzako agitazio eta ekintzak bideratzeko bitartekorik indartsuenetarikoa bat. Bitarteko hau, gainera, originala eta artistikoa izan zen bere hastapenetan bertan, besteak beste, D. Moor, V. Deni, M. Txeremij eta V. Maiakovskii... bezalako talentu paregabeko jendeak hartu zuelako parte propaganda- eta agitazio-zereginetan.



Estiloari begiratuta, aro fantastiko eta apokaliptikotik abiatu zen plakat boltxebikea Iraultza eta Gerla Zibilaren hastapenetan; gero, bera maiz garraiatu zuen trenaren antzera, aurrera eta aurrera egin zuen propaganda sobietarra herriarentzat ulergarriagoa bilakatzeko ahaleginetan eta urteak aurrera joan ahala, plakat boltxebike iraultzaile hau gero eta ulerterrazago egin zen; agitazioaren trenak aurrera egin ahala, estaziorik estazio, plakatak ahaztu, galdu egin zituen zamatatu eta lotzen zuten oztopoak; azkenean obra erre-lagoak plazaratu ziren eta kale iraultzaileetako hormek gero eta obra dinamikoagoak erakutsi zituzten.

Testuinguru artistiko eta politiko honetan, plakatgintza boltxebike iraultzaileak garatutako arerioen arteko dualitate komunikatiboa zutabe eskripto-ikoniko hauetan oinarritu da:

*a. Lehen ondorioa: gaia eta gutasuna iraultzan*

Garai honetako plakat politikoak konfrontamendu militarra ulertzeko balio izan digu, bai eta eraikitzeaz zegoen estatu sozialista sobietarraren oinarri ideologikoak eta botere sobietarraren aurkariaren karakterizazioa ulertzeko ere. Gerlak, bortxak, indarkeriak ematen die plakatetako pertsonaia, objektu, ekintza eta egoerei dantza batera egiteko musika; gerla bera da plakat elementuen isotopiak bermatzen dituen durunditasun semantikoa-ren ardatz. Nagusigo erabakigarria dauka GU modeloa<sup>5</sup> protagonistatzat duen plakatak –hamar aletarik zortzi–; halan eta guztiz ere, aipagarria da zortzi ale horietarik ia erdiek (3,7) EURAK eredu<sup>6</sup> daramatela txertaturik; esan nahi baita, ezen zelan eremu ideologi-

koan halan militarrean enfrentaturik zeuden alderdi biek protagonismoa konpartitzen zutela GU tankerako plakatetan, plakat berauetara ekarriz kalean jada indarrean zeuden enfrentamendu eta dialektika.

*b. Bigarren ondorioa: ihardule nagusiaren karakterizazioa iraultzan*

GU plakatetan, autoreek heroi anonimoa fabrikatu gura izan zuten plakataren indarra komunikatzaile ezezagun bakarrari aitortuta; EURAK plakatetan, ostera, anti-heroien zerrenda zabaldtu eta estereotipo ezagunei egotzi zitzaizkien maltzurkeria guztiak.

GU ereduko ihardulea pertsona-itxurakoa izan zen eta honek Iraultza eta bere ondorengo gizarte berria pertsonaren gain eraikiko zela komunikatu zuen. Ostera, EURAK plakatetan, ihardule hori, sarritan pertsona barik animalia edo gauza izateak plakata kapitalismoaren aurpegi inhumanoa aldarrikatzen ari zela dirudi.

Lehen ihardulearen eginkizunen genero-tratamenduari gagozkiolarik, iraultza eta kontrairaultza gizonezkoen lana izan zen. Emakumea gatazka apur-apurretan izan zen protagonista: amatasuna bultzatzeko edo alfabetakuntza-kanpainetan, frontean inoiz ez.

Lege Zaharrak familiari aitortu zion gizarte-lekua eta garrantzia transformatu gura zituen gizarte berri sobietarrak eta, bide horretatik, gizarte matxinatuak ez zion batere presentziarik ahalbidetu familiari plakatetan.

Errusieraz idatzitako plakat iraultzailean eslaviar zurientzat baino ez da lekua egon. Arraza aukera oso zehatza

5. GU modeloa: eszenako protagonismoa lagunei, aldekoie aitortzen dien plakat modeloa.

6. EURAK modeloa: eszenako protagonismoa arerioie aitortzen dien plakat modeloa.



egin zuten beraz autoreek plakateko ihardule nagusia marrazteko orduan.

Kapitalismoa, Inperioa sagar zimurra zen eta EURAK tankerako plakatak protagonista zaharrak erakutsi zituen. Iraultza, ostera, ernetzen ari zen eredu berria izanik, GU plakaten protagonistek jaiotze horixe bermatu behar zutela seriotasunez, ihardule nagusia gazteagoa izan zen.

GU plakatetako pertsonaien bidez, iraultzaren helburu nagusi eta iraupe-naren segurtasun-poliza argia zen langile eta nekazarien arteko batasuna bermatu gura izan zuten plakat-autoreek. Iraultza, langile kolektiboen egin-tza izanik, langile-kolektibo horiei zor zitzaien plakatetako protagonismoa ihardule nagusien bizibide eta profesioak marrazteko orduan. EURAK plakatetan arerioak karakterizatzeko orduan gizarte zaharrea agintean egon ziren klase guztiek eduki zuten euren ordezkaritza: burgesa, kapitalista, aristokrata, erregea, jenerala, abadea..., baita boltxebikeen etxe barruko are-riok ere: mentxebikeak.

*c. Hirugarren ondorioa: ekintzak, eszenategiak eta sinbologia iraultzan*

Plakaten azken helburua borrokalaria da eta horixe frogatzera datozkigu bertan marraztu edo argudiatu diren plakat barruko aktibitate edo ekintzak, bai denotatu ikusterrazak eurak, baita praxi eskariak edo ekintza konnotatu ixilak ere. Plakatotan bortxa, indarkeria da nagusi. Era batera edo bestera, gorrien<sup>7</sup> garaitu beharra eta zurien<sup>8</sup> galtze erraza ikusten ditugu plakatetan behin eta berriro.

Plakat sobietarrak mundu politikoa, soziala, publikoa ispilatu gura du izan. Plakat sobietar boltxebikean indibidua masa edo masa-gidari anonimo bilakatu zen autore boltxebikeen eskue-tan. Narrazioa leku sozializatueta gertatu zen beti, leku intimoetatik urrun.

Iraultza garaiko plakaten ikusleak leloei, praxi-eskariei eta heroi-komunikatzaileari erreparatu egiteaz gain, beste bi edo hiru elementu esanguratsuri ere egin behar izan zion. Mezu politikoa-ren durunditasun semantikoa elementu ugari bermatzen zutela-eta, plakat boltxebikeak irakurketa astuna, deko-detze ugari eskatu zion ikusleari; plakatak durunditasun semantikoa areagotzen zuten elementuak erabiliz lortu zuen bere zehaztasun politikoa, eta elementuok zamatatu egin zuten bisualki plakata bera. Plakatean zehar barreiatutako elementu esanguratsu ugarien isotopiei esker atzeman zite-keen bakarrik sinbologiaren mezua. Plakat iraultzailearen eszenategia, beraz, nahikoa mordoiloa da, abigarra-tua, ikur esanguratsuak han eta he-men erakusten dituena. Datuon arabe-ra, plakata zamatatuago iruditu zaigu guri mende-hasierako ikerlari sobieta-rreri euri baino.

Lanaren indarra eta arrazoia erakus-ten digu GU plakatetan ikurreria euforiko oso batek; Inperioaren gainbehera ikurreria monarkiko ilun-beltzak. Ideologiaren nondik-norakoa, iraultzai-leen kasuan, indar produktiboen lana-besak komunikatu zuen; anti-iraultzai-leen kasuan, jabegoek, propietateek. Lantresna aktiboa izan zen iraultzai-leen ikurra; propietate pasiboa eta sarritan punitiboa, anti-iraultzaileena.

7. Gorriak: matxinatu iraultzaileak.

8. Zuriak: monarkia, eliza eta estatu burgesaren aldekoak.

*d. Laugarren ondorioa: plakataren diseinua iraultzan*

Ideologiaren ikuspuntutik begiratuta plakat iraultzailea izan zena, diseinuaren aldetik plakat tradizionala zen izan. Simetria klasikoa, Errenazimentuko perspektiba eta artistaren eskutiko marrazki sinbolista dira garai hartako plakataren diseinu-ezaugarri nagusiak. Uste zitekeenaren aurka, abangoardia artistiko errusiarrek ez zuten ia plakat gerlaririk ekoiztu, eta ekoiztu zituzten apurrak besteen gerizpean geratu ziren.

Ikurreria sobietar jaio berri ugariak bultzatutako elementu-dentsitate handiak eragin zuzena eduki zuen plakat-konposaketan: Iraultzako plakata oso betea izan zen. Konposaketa orokor honetan, bestalde, aipagarria da aurreko planoetan emakumeak eduki zuen presentzia ñimiñoa eta pertsonaia nagusiek koadroan bertan gertatzen zenari begiratzeko eduki zuten joera nabarmena.

Heroiez eta sinbologiaz zamatutako plakat mordoiloak hondo ondo lasaia behar zuen garrantzitsuena espazio piktorikoan nabarmentzeko. Hondotan kolore-mantxek bermatu zuten heroiak eta sinboloak gorengo maila batean ikusi ahal izatea.

Heroia eta masa, zinema-planoen bitartez, testuinguru gerlari eta iraultzailean lekutzeko joera erakutsi zuen plakat boltxebikeak bere hasiera hartan. Indibiduoak bera, masa edo masa-gidari anonimoak karakteriza-

tzen dituen testuinguruaz azaldu du plakatak plano zabalak eskainiz: multzokoak eta osoak. Pertsonaia bera bezain garrantzitsua izan zen testuinguruak plakatgintza iraultzailean. Iharduleak beste testuinguruak berak komunikatu zuelarik, ihardulearen inguruak ikusten lagundu zuten plano zabalek.

Koloreei eurei gagozkielarik, Iraultzarekin batera sortu eta hedatu zen kolore-partiketak ia mende osoan iraun du lagunak eta arerioak tindatzeko unean. Sobietar etxeok, kideak “gorriak” izan ziren eta izan dira; kanpokoak edo arerioak, oster, “beltzak”. Partiketa honek Aberri Gerla Handian funtzionatu du, baita, hein txiki batean behintzat, Perestroikan ere. Kolore-eramaleei gagozkielarik, kolore esanguratsu horiek non agertzen diren zehazterakoan, ikurreria sobietar gutxi garatuak eta Iraultzak, Inperioak frogatu zuenaren aurka, pertsonengan sinisten zuela aldarrikatzeko zeukan beharrak, kolore pertinente eta garrantzitsu horiek –bai gorria baita beltza ere– heroiengan marraztera eraman zituen autorerik gehienak.

*e. Bosgarren ondorioa: berbaldia eta pertsuasioa iraultzan*

GU plakatetan heroi ezagunik eta ikurreria garaturik ez edukitzeak bultzatu zituen plakat-autorerik gehienak leloak eta berbaldiak euren esku zuzenetatik hedatzera<sup>9</sup>. Kontrakoa gertatu zen EURAK plakatetan, non personalizazioa posiblea izanik berbaldiak objektalak<sup>10</sup> izan baitziren. Bestetik, Iraultza azaldu beharreko kontzeptua

9. Berbaldi zuzena: autoreak berak transmititzen du mezua zuzenean, alegia mezu hori ez du iharduleak komunikatzen, mezu hori ez dago ihardulearen espazio piktorikoan erabat integraturik edo ez da bere aho zuzenetik hedatzen.

10. Berbaldi objektala: autoreak barik iharduleak berak igortzen du mezu idatzi nagusia, berbaldi hau ihardulearen espazio piktorikoan integratzen da edota iharduleak berak bere ahoz komunikatzen du.

izanik, autoreek berbaldi luzeak, esplikatiiboak, arrazonamenduzkoak erabili zituzten GU plakatetan. EURAK plakatetan, ostera, keinu-erdiarekin funtzionatu zuten mezua topikotara makurtuz. Bi kasuotan, ez neurri berean baina, GU zein EURAK plakate-tan, berbaldiak oso konminatiboak dira, aditzik erabiliena aginte erakoa, inperatiboa da-eta.

Gerla eta borroka izanik une iraultzaile hartan beharrik nagusia, persuasioak horrax bideratu zituen bere indarrak. Atxikimenduen arloan Iraultzak berak eta Iraultzarako instrumentua izan zen Armada Gorriak bereganatu zituzten sinpatiarik handienak; eta errefusamenduen arloan iraultzaileek borrokatzen zuten zanpaketak amorrurik bizienak. Premonitorioa, iragarle bilakatu zen, topikoei esker, plakat boltxebikea Iraultza garai honetan. GU plakatetako topiko nagusia iraultzailea gerla garaitzera predestinaturik zegoela zioena dugu; EURAK plakatetan, ostera, kontrairaultzaileak zanpatzaile garaiterrazak zirela zioena.

### 2.1.2. Aberri Gerla Handia (AGH)

Sobietarren eta nazien arteko ez-erasotzeko hitzarmena zela-eta, Sobietar Batasunaren aurkako inbasio nazia hasi arte, Hitlerren aurkako propaganda eta kale-agitazioa lozorroan egon ziren eta salbuespen bakar moduan aipagarriak dira Kukriniksi taldekoen lanak 30eko urteetan; baina erasoia ustekabeen hasi zenean, aberri osoa mobilizatu zen zanpaketa eta esklabotza nazien aurka; eta, lurralde okupatuetatik faxistak igaro ondorengo izuak bultzaturik, herriak nonahi marraztutako *graffiti* eta idatzitako laguntza-oihu eta mendeku-eskariak izan ziren plakat-lelorik arrakastatsuenetarikoak sarri askotan.

AGHn plakata, bere indar eta energiari esker, langile-artearen motarik garrantzitsuena bilakatu zen berriro ere. Plakat sobietarrak herritaren heroitasuna goraiatu zuen frontean eta erretagoardian. Plakat sobietarrak herritaren pairua nazien sarraskien aurrean, patriotismo sobietarra eta Armada Gorriaren humanismo eta internazionalismoa aldarrikatu zituen munduaren lau bazterretan.

Botere sobietarrak eztimamitan eduki zituen agitazio anti-nazian aritutako artistak; eta, sarritan ondratu eta saritu egin zituen: Kukriniksitarrek Stalinen lehen mailako ordena hartu zuten; Ivanov, Golovanov, Kokorekin eta Koretzkii plakat-egileei Stalinen bigarren mailako ordena eman zitzaizkien; eta, TASS leihotako Sokolov, Txeremij, Radakov, Savitzkii eta Suxmin Estatuaren ordenaz saritu zituzten.

Botere sobietarrak bitarteko handiak ezarri zituen plakataren bidezko agitazio anti-naziaren eta Aberriaren defentsa-propagandarako: 5 milioi plakat-ale ekoiztu ziren AGH bitartean lantegieta-ko lana bultzatu eta frontea egoki hornitzeko; 8 milioi plakat-ale nekazari-uztak handitu eta Aberria elikatzeko; 20 milioi plakat-ale Gerla osteko Hauteskunde-kanpaina iragartzeko...

«Dena frontierako, dena garaipenerako» lelo honek biribil dezake bai Sobietar Batasunak berak, baita plakat-egileek eurek ere gerlan aurrera egin eta garaile ateratzeko egindako esfortzu izugarriaren nondik-norakoa.

AGH bitartean, plakat sobietarrak, batetik, soldaduak eta partisoak deitu zituen heroismora; eta, bestetik, faxismoaren basapiztikeriak salatu zituen lau haizetara. Arte-jendeak, gerlari

bilakatuta, arerioen kontra zuzendu zituen lapitzak, fusilak bailiran.

Gerla bitarteko plakat politiko sobietarrek bere populartasuna bermatu zuelarik, agitaziorako arma baliotsua izan zen. Plakat politiko sobietar gerlari hau beste arma zorrotz bat izan zen armada nazia deuseztatzeko ahaleginetan.

Testuinguru artistiko eta politiko honetan, plakatgintza sobietar gerlariak ondoko nortasun eskripto-ikoniko nagusi hauek erakutsi ditu Aberri Gerla Handi bitarteko lagunen eta arerioen arteko dualitate komunikatiboan:

*f. Seigarren ondorioa: gaia eta gutasuna*

AGHan autore sobietarrek gurago izan zuten plakatetan arerioarekiko borroka bera isladatzea, gerlarako deiak egitea eta Aberri Sozialistaren oinarri ideologikoak lau haizetara ateratzea baino.

Autore sobietarrek desabantaila-egoera bortitzean ezarri zituzten arerioak plakataren diseinuan bertan. Nagusigo erabakigarria dauka GU modeloa protagonistatzat duen plakatak: hamar aletatik zortzi. Halan eta guztiz ere, aipagarria da zortzi ale horietarik batzuek (3,2) EURAK eredu daramatela euren baitan txertaturik.

*g. Zazpigarren ondorioa: ihardule karakterizazioa*

Autoreek plakatetan heroiak eta anti-heroiak fabrikatu gura izan zituzten plakataren indarra komunikatzaile bakarrari aitortuta. Ihardule-bakartasuna, hala ere, EURAK plakatetan nabarmenagoa da.

Gauzek, tresnek, ikurrek aktiboki komunikatu, hitz egin zuten garai honetan lehenago inoiz ez legez. Plakateko ihardule nagusiaren izaeran ikusten dugun aldaketa honek komunikatzaile inanimaturanzko joera honek ikurreria sozialista fetitxismorantz abiatzen ari zela intuizera garamatza.

GU ereduari, lehen iharduleen genero-tratamenduari gagozkiolarik, emakumearen presentzia sobietar plakatgintzan ezagutzen dugun gorengo mailetara heldu zen AGHan.

Gerla-plakatean kontutan hartzeko moduko balizko familia arduen artean, aipagarri bakarra GU plakatetako amatasunarena da.

Gazteak indartsu agertu ziren GU ereduko plakat sobietarrean AGHa-ren urteetan. Trintxerak betetzeko gaztearen indarra behar zuten agintari sobietarrek eta plakatek argiro jo zuten gazte-mobilizazioaren alde. EURAK plakatetan, ostera, ez da gazterik.

Errusieraz idatzitako plakatetako protagonista gisa, errusiar hiztun arraza ugarien arteko itxura-tipo bat baino ez da agertzen: eslaviar zuria.

AGHn borrokalariak borrokalari profesionalak dira: soldadu erregularrak batez ere. Plakat sobietarrak disziplina, aginte bateratuaren aginduetara egotea eta profesionaltasuna eskatu zien gerlariei.

*h. Zortzigarren ondorioa: ekintzak, eszenategiak eta sinbologia*

AGHko plakatean bortxa, indarkeria da nagusi. Sobietarren garaitu beharra eta nazien galtzea, horixe ikusten da plakatetan behin eta berriro. Plakaten

barne-aktibitateak eta praxi-eskariek arerioa zanpatze eta deuseztatzea dute helburu. Plakat sobietarrak mundu politikoa, soziala, publikoa ispilatu gura izan du eta oso gutxitan erakutsi du protagonista eszenategi pribatuan. Armak, ikur militarrek dira plakat sobietarra garai honetan betetzen dutena, zamatzen dutena. Aberri Gerla Handiko plakatak ez du Aberri Sozialistaren premisa ideologikoak azaltzeko joera nagusirik erakutsi. Sinbologia komunista plakatotan ez da substantiboa, adjektiboa baino; substantiboa dena gerla bera da.

*i. Bederatzigarren ondorioa: plakataren diseinua*

Simetria klasikoa, Errenazimentuko perspektiba eta artistaren eskutiko marrazki errealista dira garai honetako plakataren diseinu-ezaugarri nagusiak. Plakat sobietarra AGH bitarte honetan oso da aktiboa, mugimendua erruz ispilatu gura du bai gerla-ekintzak narratzen dituenean, baita gerlara abiatzeko dei egin edo erretagoardiako eginbeharrak azpimarratzen dituenean ere.

Plakat sobietarra AGH bitartean, militarki oso konnotatua eta zamatua izan arren, itxurari gagozkiolarik, aire pixka bat irabazi duela konstata daiteke, plakat oso beteek nagusigoa galdu baitute epe honetan.

Konposaketa orokor honetan, bestalde, aipagarria da aurreko planoetan emakumeak irabazitako presentzia; eta, pertsonaia nagusiek koadroan bertan gertatzen zenari begiratzeko eduki zuten joera nagusia izan arren, pertsonaiok balizko ikusleari berari begietara begiratzea deskubritu eta praktikatu zuten.

Plakataren hondoetan gizakiek eta euren ekoizpenek hartu dute lehentasuna. Plakataren hondoak behin eta berriro gogoratu die sobietarrei zer den Ama Aberriak eman diena eta zer den, nazien inbasioa dela-eta, galtzeko arriskutan dagokeena.

Planoei dagokienez, heroia eta masa testuinguruan lekutzeko joera nagusi izan arren, plakat-autore boltxebikeek plano itxiagoen erabilpena ikasi zuten eta hortaz baliatu ziren. AGH bitartean planoen erabilpena higitu egin zen plano handietatik txikiagoetarantz, zabal-zabaletatik hurbiletara.

Kolore-partiketan, zera: sobietar etxeakoak “gorriak” izan dira AGHn; arerioak, ostera, “beltzak”. Kolore-eramaileei gagozkiolarik, GU-ren “gorritasuna” sinbologian bertan aurkitzen da. Arerioen kasua bestelakoa da: eramaileerik garrantzitsuena pertsonaia bera baita (sarritan animalia itxura erakusten duena –arratoia, esate baterako–).

*j. Hamargarren ondorioa: berbaldia eta pertsuasioa*

Berbaldi zuzenaren aldekoak izan dira AGHko plakat-egilerik gehienak GU ereduako plakataren; ez, ostera, EURAK ereduakotan, non objektala izan baita erabiliena. Informazio-elementuei gagozkiolarik sinkretismorako joera nagusitzen ari da. GU plakatak, bestalde, aginte-doinuzkoak dira; EURAK, ostera, narratzaileak.

Atxikimenduen arloan gerlak berak eta garaipenerako tresna den armada gorriak bereganatu ditu sinpatiarik handienak. Errefusamenduen arloan, plakatean erabat presente dauden sarraskigile naziak dira amorrurik bizienak piztu dituztenak.

GU plakatetan adjektibazio topiko bikoitza aurkitu dugu. Batetik, armada gorri profesionala garaile aterako den armada izateaz gain, herriarekin konportamendu jatorra duen armada dela ikusi dugu; bestetik, *homo sobieticus* dei zitekeena hiritar disziplinatua, solidarioa eta entregatua dela. EURAK plakatetan, ostera, nazi inbaditzaileak zanpatzaile dira batetik, eta bestetik garaiterrazak.

### 2.1.3. Perestroika

Urte askotan gogoratzen ez zen moduko loratzea ezagutu zuen Perestroika urteetako Sobietar Batasunean sorkuntza grafikoak. Zentsura eta debeku sobietar ortodoxoetatik inoiz baino askeago, sorkuntza grafikoak mundu berri bat komunikatu gura izan zion Sobietar Batasunari berari eta mundu osoari.

Laurogeiko urteetan plakat berri bat ikusi dugu jaiotzen. Berria estiloan, gaietan eta pertsuasioan. Plakatak tematika berriak margoztu eta espazio piktorikoei buruzko kontzeptzioak aldatu dituela, beste modu batez zuzendu zaio sobietarrari.

Bakearen aldeko borrokak, armategiak gutxitzeko problematikak, inguru-giroaren babesak, adiskidetasunaren sentipen berriak, sobietarren internazionalismoaren berrikuspenak, aberriaren demokratizazioak eta Perestroikaren beraren arazok hausnarrera deitu dituzte sobietarrak plakatak direla medio. Garai hauetako plakatak kontraesana eta eztabaida bilatu ditu.

Kontrol politikoa gutxitu bada ere, artistak bestelako arazo bati egin behar izan dio aurre Perestroikan; laurogeiko urteetara arte artisten etxean presente egon ez den arazo batek

egin du orain salto eszenatokira: ekonomiaren atzerakada.

Ekonomiaren estutasunak eragin handia eduki du plakat perestroikazaleetan, inprimatzeko paper-defizita, eskasia, garrantzisua izan baita. Ekonomiaren egoera tamalgarriak garrantzia, kale-presentzia kendu dio plakatarri. Perestroikan artistek ez dituzte hormak kartel politikoz bete, paperaren eskasia dela-eta; erakusketez profitatu dira euren lanak hedatzeko.

Testuinguru artistiko eta politiko honetan, Perestroikako plakatgintzak ondoko nortasun eskripto-ikoniko nagusi hauek direla medio garatu du lagunen eta arerioen arteko dualitate komunikatiboa:

*k. Hamaikagarren ondorioa: gaia eta gutasuna Perestroikan*

Perestroika garai honetan, plakata inoiz ez bezain aske eta anitza agertzen da gaiei begiratzen diegularik. Inoiz ez bezala ikusten ditugu bertan gizarte sobietarrak bizi dituen kontraesanak. Komunismoa eta antikomunismoa elkarrekin bizi dira plakatgintza sobietarrean aldaketa- eta birmoldaketa-urteotan.

Kidetasuna eta areriotasuna hurbil dauden kategoriak dira Perestroikan. Kritikak eta autokritikak bat egiten dute Perestroikako plakat honetan. Honetara, arerioen bekatuak kideen artean ere detektatzen dira, kritika edo salaketa dena, autokritika bilakatzen da sarri askotan. Zenbait kasutan «EURAK GU ere bagara » diotela dirudi.

*l. Hamabigarren ondorioa: ihardule nagusiaren karakterizazioa*

Plakat perestroikazaleak komunika-

tzaile bakarraren laguntza bilatu du. Perestroika bitartean, lehen iharduleen azterketan aurkitzen den aldaketarik nabarmenena komunikatzaile-papere-  
ren izaeran aurkitu duguna da. Pertsonaiek galdu egin dute komunikatzaile-  
leen artean zeukaten monopolioa objektu inanimatuen mesedetan. Perestroikan gauzek pertsonak beste eta pertsonak bestetan komunikatzen dute. Pertsonak komunikatzaile-izaera galdu eta gauzek irabazi dute. Garai honetako plakatak ez du iraultza erromantikora dei egiten, zerbait prosaikoagoa du-eta bere helburuetan, egitandi humanoetatik urrun den zerbait materialagoa.

Emakumeak gizartean galdu duen presentziaren ondorio da genero-eginkizunetan ezagutu duen atzerakada. Emakumea Perestroikan lantegia uzten hasi da, etxera bueltatzen, independentzia ekonomikoa galtzen eta, hartara, gizartean bigarren mailara jaisten eta plakatetatik desagertzen ikusi dugu.

Historia sobietarrean ezagun egin zaigun konstantearekin egiten dugu berriro ere topo Perestroikan famili ardurak aztertzerakoan. Plakatak ez du apenas familia ardurarik erakusten bere espazio piktorikoan.

Perestroikan, lehen ihardulea pertsona denean, gazteak presentzia nabarmen-nabarmena hartu du. GU eredu-ko plakatetan gazteek nagusigoa irabazi dute. EURAK eredu-ko plakatetan joera guztiz bestelakoa da, eta zaharrak erabiltzeko joeraren bidez gizarte komunista sobietar ortodoxoa bide terminalean dagoela aldarrikatu da.

Gizarte sobietarraren arraza-kategoria, zurien arraza-nagusitasuna, pre-

sente dago oraingo plakatean inoiz ez bezalako erabakigarritasunez. Gu-  
txiengo etniko eta nazionalen buruzko ahaztura gorengo mailetara heldu da, noiz eta, ustez, pentsamendu- eta adierazpen-askatasunik handiena dagoen unean: hau da, Perestroikan.

Plakataren gai eta gutasun arloetan aurkitu dugun kontraesan bera aurkitzen dugu ihardule nagusiaren jarrera politikokoan. Perestroikan iragan politikoa sobietarra berrikusten, berraztertzen ari delarik, ihardule eta pertsonaien jarrera politikoa eztabaida horren menpe dago. GU eredu-ko iharduleen artean komunista ortodoxo, komunista kritikoa eta antikomunistak aurkitu ditugu. EURAK eredu-ko plakatetan, ostera, komunista ortodoxoak eta atzerritar mehatxuzaleak baino ez. Sobietar Batasunaren historian lehen aldiz, GU barik EURAK dira komunista ortodoxo.

*m. Hamahirugarren ondorioa: ekintzak, eszenategia eta sinbologia*

Eztabaida politikoa begianiztuna presente dago plakataren ekintzetan eta plakat honek berdin-berdin isladatzen du komunismoaren aldarrikapena edo komunismoaren kritikarik latzena, plakatak, azken finean, mobilizazioetara barik hausnarrera deitzen baitu.

Perestroikako plakatak plazan, eszenategi publikoan, aurkezten ditu gehinen-gehienetan ihardule nagusiak.

Sinkretismo handiko plakaten aurrean gaude Perestroika urteotan. Perestroikako plakatak airea du, airea du hausnarketa-oharra delako. Aurreko plakatak mobilizaziora deitzen zuen, oraingoak hausnarketara. Espazio libreko pentsatzeko aukera damaiote



balizko ikusleari; espazio beteak, ostera, konminatiboagoak dira, gain-informazioak, azkenean, desinformazioa baino ez du areagotzen eta.

Sinbologia berriaren bila dihardute plakat-autoreek Perestroikan. Gizartea desakralizatu eta desmilitarizatu gura dutelarik, objektu zibila, arrunta, eguneroko horixe da ikurreriara integratu gura dena GU plakatetan. EURAK plakatetan, ostera, presenteen dauden ikurrak, ikur komunista arrunt eta are-rio gerlazale apokaliptikoarenak dira.

*n. Hamalagarren ondorioa: diseinua Perestroikan*

Konposaketari begiratuta, plakat berriaren jaiotzaren aurrean gaude. Simetriarik ezak, lautasunak eta pasibotasunak, autoreak grafikogintza-aren kontzeptzio berria aurkitzen diharduela, plakat zaharra gizarte zaharra bezain urrun ikusi gura duela diote.

Teknika komunikatzaileak ere aldatu egin dira. Komunikazioa hausnar daitekeen komunikazioa da. Plakata ez da orojakilea eta pentsatzeko espazio librea, airea darama elementu-dentsitatea galduz joan delarik.

Ihardulea, pertsona denean, balizko ikusleari begietara begiratzen ikasten ari da, bai GU baita EURAK plakatetan ere.

Hondoan berriro kolorea da elementurik erabiliena. Koloreari berari gagozkiolarik bestalde, kolorerik erabiliena BELTZA da; honen ostean zuria eta horia datoz.

Konkrezioa, zehaztasun piktorikoa bilatzen duen plakata da Perestroikakoa. Perestroikako plakatak ez du egitandi heroikorik eskatzen. Plakat hau

apalagoa da, pertsonalagoa, eta ihardule nagusiaren planoek horixe bilatzen dute: pertsonaiaren konkrezioa, xehe-tasuna testuinguru erraldoietatik urrun.

Kolore-partiketa sobietar historikoa haustu egin da Perestroikan. «Gorria etxe koentzat eta beltza kanpokoentzat» joera apurtu egin da. GU plakata, gorria bezain beltza da. Kontrara, EURAK plakata, errazago da beltza gorria baino, baina gorria ere bada. Gorria da bere esangura ideologikoa gehien galdu duena; Beltzak bere siniestrotasunari eusten dio eutsi.

*ñ. Hamabosgarren ondorioa: berbaldia eta pertsuasioa Perestroikan*

Aldaketa nabarmenak ikusi ditugu berbaldian. GU plakatak gero eta objektalagoak dira batetik; gero eta sintetikoagoak bestetik. GU plakatetako aditz-moduetan aginte-erak bere monopolioa galdu du aditz narratiboen mesedetan (egite-erakoak). EURAK plakatean, inperatiboak segitzen du nagusi izaten. Perestroikako plakata- ren berbaldia, bai GU baita EURAK eruedetan ere, bestalde, orainean bizi da indikatibozko esaldietan.

Perestroika garai honetako plakatak ez daki komunista, komunista kritiko edo antikomunista den. Hori dela-eta, komunismozaletasunak eta antikomunismoak espazio piktoriko berean dute bizi beharra. Ideologia desberdinak batera elkarbizitzeak sentimenduak nahastu eta atxikimendu eta errefusamenduen arteko mugak ezabatu egin dituzte. Hala ere, atxikimendurik nabarmenena politika berriarekikoa da, eta errefusamendurik argiena politikagintza sobietar zaharraren aurrekoa.

Topikoei gagozkiolarik, GU bakezaileak diren bitartean, EURAK hiltzaile eta

hondatzaile dira. GU komunista, komunista kritiko eta antikomunistak dira. EURAK, ostera, komunista ortodoxoak.

## 2.2. Ikerketa diakronikoa

Garaian garaiko plakat-erradiografia egin ostean, hona hemen errusierazko oinarri literarioa duen plakat sobietarrak bere dualitatearen deskripzioan hiru garaiotan ezagutu dituen garapen eskripto-ikonikoaren zutaberik nagusienak:

*o. Hamaseigarren ondorioa: elementu-dentsitatea hiru garaietan*

Plakataren azalera osatzen duten elementuen dentsitateaz, joera hauek ikusi ditugu:

Plakataren espazio eskripto-ikonikoa osatzen duten elementuen kopuru eta dentsitateari dagokionez, joera sinplifikatzailea aurkitu dugu plakat sobietarrean Iraultzatik hasi eta Perestroikarainoko bidean. Plakatean agertutako eginkizunak gutxitzen joan dira mende-hasieratik amaiera bitartean. Eta eginkizunetan aurkitutako joera erraztaile hau, gainerako elementuen dentsitatean ere aurkitu dugu, zelan elementu ikonikoen kopuruan, halan berbaldi idatziaren elementuetan.

Elementu ikonikoen dentsitateari dagokionez, iharduleen eta objektu esanguratsuen dentsitateari dagokionez alegia, nagusiki, erraztasunerako, sinplifikazioranzko joera aurkitu dugu plakat boltxebikean. Iraultzako plakata da, zalantza barik, plakatik mordoiloena, beteena, komunikagarritasunik korapilotsuena erakusten duena, elementu gehien papereratzten dituena. Plakatik arinena, ostera, elementu gutxien papereratzten dituena, argi eta garbi, Perestroikakoa. AGHkoa bien arteko bidean dago.

Idatzitako elementuei dagokionez, GU plakatak bere bideari ekin dion bitartean EURAK plakatak bereari eutsi dio. GU plakatetan elementu idatzien kopurua gora etorri da epez epe; EURAK-etan, ostera, behera egin du. Elementu idatzien artean, bestalde, aditza gero eta presentzia handiagoaren jabe egin da.

*p. Hamazazpigarren ondorioa: diseinu amankomuna hiru garaietan*

Aztertutako hiru epeotako plakaten diseinu amankomunaren garapenaz, ondoko aldaketa hauexek iruditu zaizkigu aipagarrienak:

Plakata bere konposizioan gero eta asimetrikoagoa, lauagoa eta pasiboagoa egin da urteak joan ahala.

Orokorrean, gutxi badira ere, plakatetan gero eta argazki gehiago aurki daiteke.

Plakatak gero eta aire gehiago irabazi du eta plakat mordoiloak atzean geratu dira.

Plakatik erabiliena bertikala izan da.

Plakat-hondorik erabiliena kolore-mantxa izan da; honen ondoren gizakia bera eta beronen ekoizpenak agertu dira sarrien.

Hondoetako kolorea gero eta ilunagoa egin da.

Ihardule edo pertsonaia nagusia erakusteko erabilitako planoak gero eta itxiago egin dira. Iraultzak masa-mugimenduak erakusteko plano testuinguruemaleak erabili zituen, AGHak pertsonaia ikuslearengana hurbildu zuen, eta Perestroikak pertsonaiaren xehetasunak hurbilagotik erakusteko egin du ahalegin nabarmena.

*q. Hamazortzigarren ondorioa: ihardule nagusia hiru garaietan*

Ihardulearen karakterizazioaren garapenean hauexek dira aldaketan zutabeak:

Plakat sobietarreko ihardule nagusiak pertsona-itxura erakutsi du gehienbat; halan eta guztiz ere, denboraren poderioz, gero eta inanimatuago egin da eginkizun hau. Pertsonaia nagusi honek, bestalde, gehien-gehienetan gizon-itxura ezagutu du; emakumeak, AGHan izan ezean, presentzia anekdotikoa eduki du. Hiru garaiotan, bestalde, ardura familiarak ez aurkezteko joera nagusi izan da. Gure datuen arabera, pertsonaia sobietarra eslaviar zuria da eta adinez heldua gehienetan; gazterik gehienak Perestroikan aurkitu ditugu, eta zaharrik gehienak hiru garaietako EURAK plakatetan.

Iraultzan eta AGHan pertsonaiak koadro barrukoari begiratu dio gehienbat; Perestroikan, ostera, errazago begiratu izan dio koadroaren aurrean legokeen balizko ikusleari.

Pertsonaia, nagusiki, azkenik, eszenategi publikoetan, sozialduetan erakutsi da, leku pribatu eta intimoetatik urrun.

*r. Hemeretzigarren ondorioa: semantika politikoa hiru garaietan*

Mundu konnotatibora hurbilduta, hona hemen garapenaren lerro nagusiak:

Gutasun eskluientea (GU ala EURAK huts-hutsean) indartu egin den joera izan da; konpartitua (GU, EURAK eta EURAK, GU), ostera, behera etorri da denborak aurrera egin ahala.

Ekintzetan, helburu militarrekoak

gutxitu egin dira eta hauek utzitako lekua helburu politikokoek hartu dute.

Objektuen eta sinbologiaren garapena oso izan da ikusgarria. Iraultzan lantresnek markatu dute GU-ren eszenategia, AGHan sinbologia komunistak, eta Perestroikan eguneroko objektu zibilek; EURAK eszenategia, ostera, Iraultzan ikur monarkikoen, AGHan ikur naziek, eta Perestroikan ikur sobietarrek.

Kolorearen garapenean, Iraultza eta AGH bide beretik joan direla esan daiteke: GU=gorri eta EURAK=beltz. Perestroika, ostera, beste bide batetik joan da banaketa tradizional hori zalantzan jarrita.

Kidearen kolorea Iraultza garaian pertsonaiaren gorputzean ikusi dugu, AGHan sinbologia komunistan, eta Perestroikan tresnerian. Arerioaren kolorea, Iraultzan eta AGHan gorputzean agertu zaigu eta Perestroikan sinbologian.

Berbaldiari dagokionez, kideena zuzena eta arerioaren objektala izan da hiru garaiotan. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, mugak ezabatuz joan dira.

Pertsuasioan Iraultzak eta AGHak bide bati ekin diote eta Perestroikak beste bati. Iraultzan eta AGHan atxikimenduak armada iraultzaileari eta gerla babesleari izan dira; Perestroikan, politika modu ez-sobietar-ortodoxoan ulertzeko ahalegnari.

Iraultzan eta AGHan, GU tipikoa iraultzan eta beronen gidaritza ofizialean sinisten duen langile-nekazari-borrokalaria da; Perestroikan, aldiz, GU tipikoa agintari komunistek erreprimatutako-bakezale-kritikoa da.

Iraultzan eta AGHan errefuxamendurik beroenak zuri eta nazien kontra-koak diren bitartean, Perestroikan sobietar ortodoxoen aurkakoak dira.

Iraultzan eta AGHan arerio tipikoak zuri-zanpatzaile-garaiterrazak eta basapizti-nazi-galtzaileak diren bitartean, Perestroikan arerioa etxeko sobietarra da, berau hiltzaile eta gezurti delarik.

### 3. Ikerketa berrietarako proposamenak

Irakurri berri duzun doktorego-tesi honen lapurpenean, GU vs. EURAK, kideen eta arerioen karakterizazio eskripto-ikoniko sinkronikoa eta diakronikoa aztertu dira hiru garai oso zehatzetan: Iraultzan, Aberri Gerla Handian eta Perestroikan. Bihar-etzikiko balizko ikerketa, ikertzapen-lerro hauetara heda ledin eta galderalar nagusi hauei erantzutea gustatuko litzaidake:

a. Zelakoa izan da sobietarraren karakterizazio eskripto-ikonikoa arerioaren plakat politikoan? Alegia, zer nolakoa izan da Iraultza bitartean plakat zurian boltxebikea? Eta Aberri Gerla Handia bitartean sobietarrak areriotzat zuen plakat germaniarrean?

b. Lan honetako ikerketa-saioak burutu zirenean ezkutaturik zeuden eta Stalin protagonistatzat zeukaten plakat gerlariek zer karakterizazio erakutsi dute euren baitan? Eta ildo beretik, zer karakterizazio eskripto-ikoniko erakutsi dute plakat sobietarrek Aberri lider ofizialei kontsagratutako plakatetan (Lenin, Stalin, Gagarin, Stajanov...)?

c. Aztertu ditugun hiru garaioetan, zelakoa izan da atzerritar hizkuntzaz argitaratu den plakat politiko sobietarra?

d. Norantz abiatu da plakat politikoa Sobietar Batasuna desagertu ostean?

### Bibliografia aukeratua


- Луначарский, А. (1930): *Мы наши друзья и наши враги в ризунках Дени*. Гос. издательство arg. Mosku-Leningrad.
- Wimmer eta Dominick, (1983): *Mass Media Research*, Warsworth Publishing arg., Belmont.
- Аругюнян, А. (1987): *Массово-политическая работа компартии Армении в годы ВОВ*. МГУ им. Ломоносова arg. Mosku.
- Бабурина, Н. (1975): *Политический плакат художников Р. Федераций*. Художник РСФСР arg. Leningrad.
- Бабурина, Н. (1984): *Советский политический плакат*. Советский художник arg. Mosku.
- Бабурина, Н. (1988): *Русский плакат (XIX-XX)*. Художник РСФСР arg. Leningrad.
- Бурик, Сиверский. (1960): *Советский плакат 1918-1921*. Из-во Всес. книжной плакаты arg. Mosku.
- Демосфенова, Г. (1962): *Советский политический плакат*. Искусство arg. Mosku.
- Демосфенова, Г. (1985): *Советские плакатисты-фронту*. Искусство arg. Mosku.
- Евтеева, Н. (1969): *Партийная пропаганда Московской губернской организации РКП/б в период 1921-1925*. Автореферат дисс. Mosku.

- Jegorov A. et Litvinov, V. (1989): *The posters of glasnost and perestroika*, Peguin book arg. Mosku.
- Jospin, Semenoff, Coldey. (1991): *URSS la contestation grafique*, Milan arg., Toulouse.
- Kalinin, M. (1943): *Articles et discours (1941-1943)*, Editions en langues étrangères arg., Mosku.
- Калинин, М. (1944): *Несколько слов о пропаганде и агитации*. Госполитиздат arg. Mosku.
- Каменский, А. (1973): *Политическая сатира (1929-1946)*. Советский художник arg. Mosku.
- Комаров, Н. (1990): *Государственный комитет обороны постановляет*. Воениздат arg. Mosku.
- Краев, С. (1970): *Массово-политическая работа компартии (1921-1925)*. Автореф. дисс. Mosku.
- Лашкул, Э. (1962): *Украинский советский плакат (1954-1945)*. Академия наук УССР arg. Kiev.
- Лобанова, В. (1948): *Выставка художников советского плаката*. Искусство arg. Mosku.
- Маяковский, В. (1955): *Маяковский В.В., Собрание сочинений*. Гослитиздат arg. Mosku.
- Матафонов, В. (1977): *Боевой карандаш. Художник РСФСР* arg. Mosku.
- Осипова, Т. (1964): *Массово-политическая работа в деревне в первый год социалистической революции*. Автореферат дисс. Mosku.
- Полонский, В. (1925): *Русский революционный плакат, монография*. Государственное издательство arg. Mosku.
- Пишкова, Н. (1962): *Агитационно-массовая работа коммпартии в годы ВОВ*. Министерство выс. образования РСФСР arg. Sverdlovsk.
- Сурков, А. (1982): *Кукрыниксы. По Врагам мира*. Плакат arg. Mosku.
- Томэк, В. (1971): *Массово-политическая работа партийных организации среди колхозно-крестьянства Украины (1943-1945)*. Автореферат дисс. Kiev.
- Щеткин, Г. (1960): *Рисунки Кукрыниксы*. Изогиз arg. Mosku, 1960.
- Авдейчик, И. (1985): *Плакаты первых лет советской власти (1918-1941)*, Государственный музей БССР arg., Minsk.
- Долинская, В. (1968): *Плакат Узбекистана*. Фан arg. Taxkent.
- Гончаров, Н. (1989): *Белорусский политический плакат*. Беларус arg. Minsk.
- Грачев, А. (1985): *Плакат в борьбе за мир*. Плакат arg. Mosku.
- Иванов, К. (1986): *Агит-плакат. Советский художник* arg. Mosku.
- Иванова, О. (1985): *Кукрыниксы: годы войны*. Изобразительное искусство arg. Mosku.
- Лукьянов, М. (1991): *6-ая всероссийская выставка плаката*. Союз художников РСФСР arg. Mosku.
- шмитков, В. et al. (1977): *Агитация искусством*. Молодая гвардия arg. Mosku.
- Baburina, N. (1990): "El cartel ruso y soviético 1900-1930", *Debats* 34, Bartzelona.
- Strigalov, A. (1990): "El arte de la propaganda revolucionaria, Agitprop", *Debats* 34, Bartzelona.
- Варшавский, Л. (1946): "Военная тема в советском изобразительном искусстве", *Знамя* 7, Советский писатель arg., Mosku.
- Вишеневский, В. (1943): "Боевой карандаш. На выставке ленинградских художников", *Труд*, 1943-09-13, Mosku-Leningrad.






Butxkin, T., 1917  
 Askatasunaren alde!  
 Gerla garaipenera arte!



Maiakovskii et al., 1920  
 Poloniako frontera!




Apsit, A., 1918  
 Proletario diktaturaren urteurrena.  
 1917-1918




Kotxergin, N., 1919  
 Arerioa hurbil da!  
 Dena Petrograd babesteko!



Kukriniki, 1941  
Jo eta akaba itzazu arerioak deskantsu barik.



Kokorekin, A., 1920  
Aberriaren alde.




Toidze, I., 1941  
Ama Aberriak egiten dizu dei.




Kokorekin, A., 1942  
Dena garaipenerako!  
ESSBeko emakumeek fronteari!






Domanova et al., 1987  
Bideetan lege: alkoholik ez!



Skrinnik, A., 1988  
Eskerrik asko bihotza horrela maitatzen jakiteagatik!



Akmanov, R., 1987  
Osasun Ministerioak jakinarazi egiten du!



Faldin et al., 1987  
ESSBeko errepede atlasa